Eraikhitz
SISTEMA

EUSKARAZ ELKAR ULERTZEKO GURE BIDEA

Aldahitz IKERKETA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

Eraikhitz SISTEMA

EUSKARAZ ELKAR ULERTZEKO GURE BIDEA

2026ko azaroa

Aldahitz IKERKETA

Proiektuan partaide eta babesle:

Gipuzkoako Foru Aldundia (Etorkizuna Eraikiz eta Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza)

Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

Nafarroako Gobernua (Euskarabidea)

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Nafarroako Gobernua

Proiektuan partaide:

Ahize-AEK, Artez, Elhuyar, Emun eta Taupa

Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko lizentziapean dago. https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/

Maketazioa: **Astidiseinua**

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

1

ZER DA ERAIKHITZ SISTEMA?

Erakunde edo eremu definitu batean jende-multzo batek borondate kolektiboz egiten duen transformazio-prozesu bat da. Prozesu horren emaitza gisa, eremu edo erakunde hori bilaka liteke espazio bat non posible den edonori euskaraz egitea, hark ulertzea eta norberak euskaraz aritze hori onartua dela sentitzea.

Eraikhitz Sistema aplikatuta, erakunde/eremu horretan euskaraz aritu nahi duenak hori modu erreal eta praktikoan egiteko aukerak zabaldu eta ugaritu egiten dira, baina kontuan hartzen eta errespetatzen da ere euskaraz aritzeko erraztasun nahikorik, joerarik edo nahirik ez dutenen aukera.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2

ZEIN DA HELBURUA?

Bi helburu nagusi ditu ***Eraikhitz***ek. Lehenengoa, erakundea bihurtzea, bertako partaideen erabakiz, eremu bat, espazio bat non posible den praktikan erakundeko edonori euskaraz egitea, guztiek ulertzen dutelako. Eremu bat, beraz, non askatasun erreala egongo den euskaraz zein gaztelaniaz edonorekin aritzeko.

Bigarrenik, ***Eraikhitz***en helburua da erakunde barruan euskaraz aritu nahi duenari horretarako bidea erraztea, harremanetan baldintza egokiak sortuz eta horretan trebatuz.

Beste hitz batzutan esanik, helburua da prozesuaren amaieran erakunde osoa *arigune* bihurtzea, bertako kideen erabakiz eta ekimenez.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

3

ZEIN EZAUGARRI DITU ERAIKHITZ SISTEMAK?

3.1. Borondatezkoa

Eraikhitz Sistema aplikatzeko, lehenik, erakunde bateko zuzendaritza edo arduradunen aldeko erabakia behar da. Erabaki horretan baloratuko da prozesua erakundearentzat onuragarria izan daitekeen, egingarri ikusten den, eta eskura dauden eskatzen dituen baliabideak.

Eta bigarren pausoa erakunde/eremu hori osatzen duten pertsonen nahia da. Sistema honen aplikazioak jendearen partaidetza aktiboa eskatzen duenez, beharrezkoa da horren aldeko borondate zabal eta esplizitu bat. (ikus 9. galdera)

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

3

3.2. **Hiru metodologia**

Eraikhitz Sisteman oinarrian **Aldahitz Ikerketa**n azken urteotan bildutako ezagutza dago. Ikerketa horrek (ikus 14. galdera) aztergai ditu euskararen aldera gertatzen diren (edo gerta litezkeen) *hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak*.

Halako prozesuak erraztu eta bideratzeko helburuarekin, hiru metodologia sortu dira **Aldahitz**en, horien aplikazio praktikoa egin, eta aplikazio horren emaitzak ikertu. Ikerketa-ildo horretan maila teorikoan zein praktikoan lorturiko ezagutzan oinarritzen dira sistema honen diseinua eta printzipioak.

Hiru metodologia horiek ***Uler-saioak***, ***Ulerrizketa*** eta ***Eusle*** dira (ikus 4.1, 4.2 eta 4.3 galderak). ***Eraikhitz Sistema*** aplikatzea erabakitzen den erakunde edo eremuan, hiru metodologia horiek modu konbinatu eta progresiboan erabiltzen dira, haien arteko loturak eginaz finkaturiko helburuetara iristeko.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

3

3.3. **Erronka egingarriaren oreka**

Eraikhitzek proposatzen duena bezalako transformazio kolektibo bat ez da ahaleginik gabe gertatzen. Borondate orokorra behar da, batetik, baina bestetik, metodologia horien aplikazioak eta horien bitartez partaideek denboran zehar elkarrekin egiten dituzten prozesuek badituzte bere zailtasunak eta zaindu beharreko uneak. Eta badute bere erronka osagaia ere, maila kolektiboan zein eskalarik txikieneko harremanetan (bi kideren arteko harreman partikularrean).

Erronka horiek modu egingarrian antolatu eta bideratzea da sistema honen ezaugarrietako bat. Egingarritasun hori maila ezberdinetan aplikatzen da: orokorrean hasteko, borondate kolektiboan oinarritutako erabakitze-sistemaren bidez, eta baita maila zehatzagoetan ere, hiru metodologien esperientziak garatzeko garaian.

Erronkak modu *egingarrian* egiteak lotura du, bestalde, erakunde horren edo eremu horretako ohiko jarduera zaintzearekin. ***Eraikhitz Sistema***ren diseinuan garrantzitsua da erakundearen jarduera zaintzea, eta proposatzen den transformazio prozesua bateragarri egitea erakundearen eguneroko jarduera ahalik eta gutxien kaltetzearekin. Bestalde, sistemaren aplikazioak irudikatzen ditu erakunde horrentzat zein bertako kideentzat hainbat onura ere (ikus 12. galdera).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

4

ERAIKHITZ SISTEMAREN HIRU METODOLOGIAK

4.1. Zer da Uler-saioak metodologia?

Uler-saioak euskaraz batere ez dakiten edo oso gutxi ulertzen duten kideek ahozko euskararen ulermenean oinarrizko gaitasuna lortzeko diseinaturiko metodologia berezia da.

Bere helburua da euskaraz ezer ulertzen ez duen pertsona bati ahalik eta eperik laburrenean oinarrizko euskara ulertzeko aukera eskaintzea. Zehatzago esan, helburua da, hiztun horri aukera ematea –ahalik eta denbora-inbertsio txikienarekin– hurbileko ***mintzatzaile*** batek egindako euskara egokitua edo erraztua ulertzera iristeko.

Ikasketa hori laburtu nahian, hautu bat egiten da metodologian; ohiko lau trebetasunetatik (irakurri, idatzi, ulertu, hitz egin), bakarra lantzen da klaseetan: Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa ahozko ulermena. Ondorioz, ***Uler-saioen*** amaieran lortzen den euskarazko ezagutza ere mugatua da (ahozko oinarrizko ulermena soilik).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

4

Metodologia, ingurune babestu batean garatzen da: gela batean, ordutegi baten barruan eta antzeko maila duten beste kide batzuekin batera. Bertan, ***trebatzaile*** (irakasle) batek euskarazko *input ulergarri* ugari ematen die ikasleei. ***Trebatzaileak***, euskara erraza eta sinplea erabiliz, komunikazio-jarduerak bideratzen ditu, eta etengabe egiaztatzen du ikasle horiek ulertutakoa.

Ez da gramatikarik lantzen eta, hitz egiteko gaitasuna lantzen ez denez, partaideei ez zaie saioetan euskaraz egiteko eskatzen. Ulermena da foku bakarra, eta ondorioz ikasleei (***ulertzaileei***) dagokie etengabe egiaztatzea ***trebatzaileari*** ulertu diotena.

Uler-saioak metodologia hiru ziklotan banatzen da (ULS 1, 2 eta 3), eta guztira 120 ordu lektiboko iraupena du. Hiru zikloak osatuta, partaideak ahozko euskaran *oinarrizko ulermena* lortzera iritsi ohi dira (erreferentzia modura, B1 inguruko ahozko ulermena). Saioetan izena emateko erabakia borondatezkoa da, eta indibiduala.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

4

4.2. **Zer da Ulerrizketa metodologia?**

Ulerrizketa metodologia *hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak* errazteko metodologia bat da, bi profil desberdineko hiztunak batzen dituena: euskaraz ulertzeko *tarteko maila* duten kideak batetik (***ulertzaileak***), eta bestetik, euskaraz hitz egiteko maila ona eta erraztasuna dutenak (***mintzatzaileak***). Metodologia *kolaboratiboa* da, eta 2-3 laguneko talde txikietan garatzen da.

Trebetasun bana garatzen dute bi profiletako kide horiek metodologiaren baitan, eta horri esker haien arteko harremana egoera naturalean euskaraz izaten hasteko aukera zabaltzen da. *Tarteko ulermena* duen kideak euskara modu aktiboan ulertzeko jarrera garatzen du, eta aldiro ulertu duenaren gaineko *feed-back-a* ematekoa (gaztelaniaz hasieran, eta denborarekin euskaraz). Hitz egiteko gaitasun ona duten kideek, bestalde, haien hizkera egokitzeko trebetasuna garatzen dute, euskara errazago bat egitekoa, baina euskaraz jarraituz. Modu horretan, maiz *ele biko elkarrizketak* gertatzen dira metodologia honetan.

Bi trebetasun horien lehen oinarriaz jabetzeko, formazio praktiko eta labur bat jasotzen dute kideek (2 edo 4 ordukoa, kasuaren arabera). Hortik aurrera, ***Ulerrizketa*** kideen arteko harreman naturalean garatzen da, aparteko klase edo bilerarik gabe.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

4

Behin ***mintzatzaile*** eta ***ulertzaile*** baten arteko harremana "*ulerrizketa estiloan*" izaten hasten denetik aurrera, euskaraz *tarteko ulermena* duen kideak egunero jasotzen du euskarazko *input ulergarria*, haien harremanaren egoera errealetan. Horri esker, asteak eta hilabeteak pasa ahala, gero eta hobeto ulertzen du inguruko ***mintzatzaileen*** euskarazko jarduna eta, denborarekin (horretarako segurtasuna eta gogoa izanik), ingurukoei euskaraz hitz egiten ere hasiko da.

Ulerrizketa estilo hori ***mintzatzaile*** eta ***ulertzaile*** baten arteko harreman naturalean txertatzea, dena den, ez da beti erraza. Lan *kolaboratiboa* eskatzen du, jarrera enpatiko bat bi kideen artean, eta elkarri egokitzea (*sintonizazioa*), bereziki hasieran. Eta ez da ariketa linguistiko hutsa: bi kideek prestutasuna izan behar dute euren arteko harremanaren hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatzeko.

Ohiko ***Ulerrizketa*** esperientziek bi hilabeteko iraupena izaten dute, eta asteroko jarraipena (*berrespena*).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

4

4.3. **Zer da Eusle metodologia?**

Eusle metodologia *hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak* errazteko metodologia bat da, elkarren artean harremana maiz duten kidez osaturiko talde naturaletan aplikatzeko sortua.

Talde-erabakian oinarrituriko esperientzia bidez garatzen da (borondatezkoa da, beraz), eta ***eusle***-aren figura baliatzen du taldeko hainbat hizkuntza-ohitura urratzeko eta euskararen aldera aldatzea eta finkatzea errazteko. Metodologia sinplea da, eta talde horren eguneroko harremanetan bertan garatzen da, aparteko formazio, bilera edo klaseen beharrik gabe.

Bi baldintza bete behar dira talde batean metodologia hau aplikatu ahal izateko: gehiengoaren borondatea (%75) eta taldeko kide guztiak gai izatea euskaraz elkarrizketa arrunt bat ongi ulertzeko. Ohiko ***Eusle*** esperientziek bi hilabeteko iraupena izaten dute, eta asteroko jarraipena (*berrespena*).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

4

Aldahitz ikerketako hiru metodologiak

ULER-SAIOAK

- Otik B1era arteko ulermena
- Ulermena lehenbailehen eskuratu
- Uler-saioak 1, 2 eta 3

ULERRIZKETA

- "Tarteko" ulermena (≈ B1)
- Ulertzaile/mintzatzaile dinamika
- Ele biko elkarrizketak; hizkera ulergarria; konprobatzea

EUSLE

- Kide guztiek ulertu
- Talde erabakia (+ berrespena)
- Eusleak + haien jokaera zilegi

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

5

NOLA KONBINATZEN DIRA METODOLOGIAK?


Erakunde/eremu batean sistema aplikatzeko erabakia hartu ondoren, bertako kideen "euskarazko ulermenaren mapa" moduko bat osatzen da. Hiru multzo nagusitan sailkatzen dira partaideak: batetik euskaraz ongi hitz egitekoko gai direnak, bigarrenik euskaraz *tarteko ulermena* dutenak (baina hitz egiteko gaitasunik edo erraztasunik ez), eta hirugarrenik, euskaraz ezer ez dakitenak edo oso gutxi ulertzen dutenak.

Bi dinamika abiatzen dira lehen une batean, beti ere, partaideen borondatezko erabakietan oinarrituta. Batetik, euskaraz ezer ez dakitenak ahozko oinarrizko ulermena eskuratzen hasten dira ***Uler-saioak*** metodologiaren taldeetan, ***trebatzaile*** batekin. Eta bestetik, euskaraz *tarteko ulermena* duten (***ulertzaileak***) eta euskaraz ongi egiten duten kideen artean (***mintzatzaileak***), talde txikiak osatu eta ***Ulerrizketa*** lehen esperientziak abiatzen dira.

Bigarren une batean, ***Uler-saioak*** amaiturik euskaraz *oinarrizko ulermena* eskuratu duten kideak hasten dira ***Ulerrizketan***: haien hurbileko bi euskaldun ***mintzatzaile*** gisa hartuta, euskarazko ulermen hori klasetik egoera errealetara ateratzen dute, eta euskarazko *input ulergarri* hori egunero jasotzen hasi.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

5



Ulerrizketa esperientzia horien hurbileko jarraipena egiten da, dinamika hori bi aldeentzat (***ulertzaile/mintzatzaile***) *egingarria* izan dadin zaintzeko, eta behar den kasuetan errefortzuak eman edo egokitzapenak egiteko. ***Ulerrizketa*** dinamiken eguneroko jardunaren bitartez, euskarazko *oinarrizko ulermena* zuten kideek, gero eta ulermen hobea dute.

Esperientzia horiek, lehenik hurbileko bi ***mintzatzailerekin*** abiatzen dira. Denbora bat pasata, inguruko ***mintzatzaile*** gehiagotara zabaltzen dira (*mintzatzaile hodeiak*). Modu horretan, ***ulertzaile*** bakoitzak bere inguruko kide gehiagoren aldetik jasotzen du euskara ulergarria, egoera errealetan.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

5


Eguneroko dinamika horiei esker, denborarekin, euskaraz *oinarrizko ulermena* zuten kide guztiak iristen dira euskarazko ulermen on batera. Une horretan jada erakundeko jende guztia da euskaraz elkarrizketa arrunt bat ongi ulertzeko gai, eta bestalde horietako askok egin dituzte aldaketak hurbileko kideekin hizkuntza-ohituretan, gaztelaniatik euskarara.

Hirugarren urratsa gertatzen da orduan. Erakundeko sail eta talde naturaletan, ***Eusle*** dinamikak abiatzen dira, hauek ere talde horien borondatezko erabakiz. Eta dinamika horiek garatu eta zabaldu ondoren iristen da ***Eraikhitz Sistema***ren laugarren urratsa, "*euskarazko esperientzia normalizatua*" deitzen duguna: euren harremanetan euskaraz egiteko erraztasuna eta gogoa dutenek hala egiten dute modu iraunkorrean, eta erakundeko kide guztiekin egin dezakete, guztiek lortu dutelako jada elkarrizketa arruntak euskaraz ulertzeko gai izatea, eta jokaera hori borondate kolektiboz onartua eta sustatua izan delako.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

5

Aldahitz Ikerketako hiru metodologiak eta haien arteko loturak



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

6

ZEIN BERRITASUN DAKAR?



Aldahitz Ikerketan azken urteotan lorturiko informazioan oinarriturik, ***Eraikhitz Sistema***ren bitartez, euskarazko ulermenean eta erabileran aurrera egiteko eta urrats kualitatibo berriak emateko ibilbide bat proposatzen da.

Proposamen horretan, eta erabiltzen diren hiru metodologien oinarrian badago, nolabait esan, *kultura soziolinguistiko berri* bat, euskararen erabileran aurrera egiteko gaur egun ditugun mugak gainditzeko balio dezakeena.

Kultura soziolinguistiko berri horrek zalantzan jartzen ditu gaur egun euskara eta gaztelania erabiltzean gizartean zabaldurik eta erroturik dauden hainbat jokaera edo idatzi gabeko arau. Esate baterako, norbaitek euskara "ongi" ez badaki, ohikoena da hari inguruko guztiek gaztelaniaz egitea. Edo, bide bertsutik, gaur egun ez dira oso ohikoak *ele biko elkarrizketak*, non kide batek euskaraz egiten duen eta besteak gaztelaniaz, baina elkar ongi ulertuz.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

6

Euskararen erabileran pauso berriak eman eta hizkuntza-ohituretan aldaketak gertatzea posible egiteko, ***Eraikhitz Sistema***n proposatzen da euskarazko ulermena hartzea erreferentzia nagusi gisa. Eta, ulermena bermatzetik abiatuta, euskarazko erabilera berriak posible egingo dituzten erronkak eta prozesuak garatzea proposatzen da erakunde bateko partaideen artean.

Kultura soziolinguistiko berri horren elementu garrantzitsu bat dira *ele biko elkarrizketak*. Non ***mintzatzaile*** batek euskara egokitua egiten duen, eta ***ulertzaile*** batek aldiro konprobatzen duen ulertutakoa, eta zeozer ulertzen ez duenean eskatu egiten duen. Edo beste elementu bat da euskaraz ongi egiten dutenek haien *hizkera egokitzea*, ikasten ari direnen ulermena bermatzeko egoera errealetan. Euskaldunek halako pausoak emateko, dena den, beharrezkoa da ere erdaldunek, lehenik oinarrizko ulermena lortzea, eta ondoren haiei euskaraz egiteko eskatzea, modu aktiboan eta esker onez.

Batzuen eta besteen jokaera eta estilo berri horiei esker, euskarazko praktika berriak abiatu, zabaldu eta egonkortzen dira. Guzti hori bideratzeko, ordea, beharrezkoa da kideen arteko lan *kolaboratibo* bat, eta jokaera berri horiek posible egingo dituen adostasun eta giro egoki bat.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

7

PROZESU KOLABORATIBOA DA? ZERTAN ETA NOLA?



Eraikhitzek proposatzen duen transformazioaren oinarri nagusia erakunde/eremu bateko kideen erabaki kolektiboa da. Proposatzen duen dinamika, berriz, neurri handi batean *kolaboratiboa* da. Zer esan nahi da horrekin? Helburu gisa hartzen den egoerara iristeko transformazioa, neurri handian, bertako kideen arteko kolaborazioari esker gertatzen dela.

Euskaraz ez zekiten kideek behin *oinarrizko ulermena* lortu dutenean (***Uler-saioetan*** arituta, edo beste bideren batetik), gai izango dira inguruko euskaldunen euskara erraztua edo egokitua ulertzeko, baina ez dira (oraindik) gai izango euskarazko elkarrizketa arrunt bat ongi jarraitzeko. Horretarako, beharrezkoa da euskarazko "ulermen on" batera iristea. ***Eraikhitz***en euskarazko *oinarrizko ulermen* edo *tarteko ulermenetik* ulermen on batera doan bidea *prozesu kolaboratibo* baten bidez egitea proposatzen da. Ez klaseetan edo bakarkako ikasketa bidez, baizik erakunde horretako eguneroko harremanetan bertan.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

7

Proposatzen den prozesu kolaboratibo hori gertatzen da euskaraz tarteko ulermena lortu duten ***ulertzaileen*** eta egoera praktikoetan haiei euskara egokitua egiteko prest dauden ***mintzatzaileen*** artean. *Lan kolaboratibo* hori da, hain zuzen, ***Ulerrizketa*** metodologiaren oinarri nagusietako bat, eta bi aldeentzat egingarria eta atsegina izateko, beharrezkoa da bi aldeen aldetik jarrera enpatiko bat, edo (linguistikoki) "bestearen zapatetan" jartzeko eta kolaboratzeko prest egotea. Gainerakoan, nekez izango da bideragarria.

Eraikhitzen izaera *kolaboratiboak* badu –aipaturikoaz gain– bestelako dimentsio bat ere, lotura duena gorago aipaturiko *kultura soziolinguistiko berri* batekin, eta euskal gizarteko "euskaldunen" eta "erdaldunen" arteko harreman eta dinamikekin (ikus 6. galdera).

Sistema honetan irudikatzen den transformazioaren aukeraren aurrean galde genezake: norena da ardura nagusia, "euskaldun"ena, edo "erdaldun"ena? Nork mugitu behar du lehenik? ***Eraikhitz***en proposamena honakoa da: biek batera. Hemen proposatzen den dinamika kolaboratiboan, posible da euskararen ulermen eta erabilera aldetik transformazio bat gertatzea, egoera berri batera iristea, profil bakoitzeko hiztunek pauso bat ematen dutelako (mugitu), eta haien jokaera batzuk aldatu, egokitu, ikasi edota praktikatu.

Eraikhitzen, erakunde/eremu bateko "euskaldun" eta "erdaldunek" halako dinamika kolaboratibo orokor bat antolatu, abiatu, praktikatu eta egonkortzeko ibilbide bat proposatzen da, euskarazko ulermenean eta erabileran aurrera egin eta urrats kualitatibo berriak emateko aukera zabaltzen duena.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

8

NOLA KOMUNIKATZEN DA ERAIKHITZ SISTEMAREN APLIKAZIOA?

Eraikhitz Sistemaren aplikazioa borondate kolektiboan oinarritzen da, eta proposatzen den dinamika kolaboratiboa da. Sistemaren oinarrian daude, beraz, partaideen erabaki pertsonal eta, batez ere, kolektiboak.

Edozein erabaki hartzeko garaian, bestalde, funtsezkoak dira informazioa eta komunikazioa. Kasu honetan, besteak beste, nola aurkezten den egitasmoa, nola proposatzen zaizkien profil ezberdineko hiztunei metodologien dinamikak, edota nola komunikatzen diren erakundean prozesuaren aurrerapenak, eta zein giro sortzen den horren inguruan.

Komunikazio honetarako oinarrizko informazioa ***Eraikhitz Sistema***n definituta dago, baina informazio hori erakundean komunikatzeko euskarriak sortzea (edo egokitzea) eta komunikazio-lan hori bideratzea erakundearen egitekoa izango da nagusiki.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

9

NOLA HARTZEN DIRA ERABAKIAK?

Eraikhitz aplikatzeko lehen urratsa erakunde horretako zuzendaritza edo arduradunen aldeko erabakia da, eta bigarrena erakundeko partaideen nahia edo borondatea.

Borondate kolektibo hori artikulatzeko unitatea erakundeko sail, departamendu edo atalak dira. Horietako bakoitzak modu autonomoan erabakitzen du prozesuan parte hartu edo ez, eta aldeko erabakiak gehiengo kualifikatuz hartzen dira (%75eko aldekotasuna).

Sailen borondate kolektibo hori prozesuaren hiru unetan aplikatzen da: lehenik prozesua abiatzeko, eta ondoren, sistemaren aplikazioko beste bi unetan berresten da –edo ez– aurrera egiteko nahi hori (ikus 13. galderako eskema).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

9

Sailen hasierako erabaki eta bideko berrespen horien arabera, ***Eraikhitz Sistema***ren aplikazioak erakundera ekarriko duen transformazioa orokorragoa edo mugatuagoa izango da: sail guztiek erabakitzen badute aplikatzea, erakunde osoan bideratuko da transformazio hori. Aldiz, sail batzuetan ez aplikatzea erabakitzen bada, transformazio hori partzialagoa izango da, ez baitu erakundea bere osotasunean hartuko.

Sailetako erabaki kolektibo horiek dira sistemaren garapenerako oinarria, baina badira eskala txikiagoko erabakiak ere. ***Eusle*** eta ***Ulerrizketa*** metodologietan, esperientzia hori egingo duten kideena da erabakia, bai esperientzia bat abiatzeko, eta bai harekin aurrera jarraitzeko ere. ***Uler-saioetan***, izena emateko erabakia norbanakoarena da, baina, sistema eta bere dinamikak erakunde osora zabaltzeko, beharrezkoa da partaide guztiak iristea euskarazko *oinarrizko ulermen* horretara.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

10

NOLA ANTOLATZEN DA?

Eraikhitz Sistema aplikatzeko erakundeko zuzendaritza edo arduradunen hasierako erabakiarekin, definitzen da ere prozesua antolatu eta koordinatzeko erabiliko den modua, guneak eta arduradunak.

Antolaketa horretan, alde batetik behar da erakundea sailetan banatzeko definizio bat, eta sail horietako bakoitzean arduradun bana. Arduradun horiek Koordinazio Batzorde batean elkartzen dira, eta Batzorde horrek badu lotura bat erakundeko zuzendaritza edo arduradunekin.

Sistemaren garapenari buruz sail bakoitzean hartuko diren erabakiak Batzorde horren bidez koordinatzen dira, eta sail bakoitzean arduraduna koordinatzen da saileko kideekin. Informazioa koordinatzeko ere, antzera; Koordinazio Batzorde hori baliatuko da, bai informazio orokorra sailetara bidaltzeko, eta baita sail guztien informazioa biltzeko.

Horrez gain, badago ere, erakundearen koordinazio tekniko bat Aldahitz Ikerketako kideekin prozesuan zehar.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

11

ZEIN KONPROMISO ESKATZEN DIO ERAKUNDEARI?

Erakundearen aldetik, ***Eraikhitz Sistema*** aplikatzeko abiapuntuko erabakiaren batera, lau konpromiso eskatzen ditu prozesu kolektibo honek:



11.1. Helburuak

Prozesua ongi garatu ahal izateko behar da erakundearen konpromiso eta identifikazio bat sistema honek dakarren transformazioarekin, eta haren azken helburuekin.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

11

11.2. Erabakitze-sistema


Egitasmo honekiko erakunde bateko kideen aldetik proposatzen den atxikimendua horizontala, kolektiboa eta askea da. Horizontala, sail bakoitzak maila berean erabakitzen duelako sistema aplikatu ala ez. Kolektiboa, sail bakoitzean erabakia talde mailan edo modu kolektiboan hartzen delako. Eta askea, sail bakoitzak askatasuna edo autonomia izango duelako egitasmoa aplikatu edo ez erabakitzeko. Noski, sail batek edo batzuk erabakitzen badute egitasmoa ez aplikatzea, horrek mugatu egingo du egitasmoaren aplikazioa, ez baitu erakunde osoa hartuko.

Erabakitze-sistemaren ezaugarri horiek zuzenean lotuta daude sistema honetan erabiltzen diren metodologien oinarriekin. Borondatezko lana eta lan kolaboratiboa proposatzen den neurrian, beharrezkoa da erabakitze-sistemak ezaugarri horiek izatea, eta horiek errespetatzea prozesuan zehar.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

11

11.3. Baliabideak



Diru-baliabideak behar dira alde batetik sistema hau aplikatzeko, eta bestetik denbora-baliabideak. Diruari dagokionean, ***Uler-saioak*** emango dituzten eta ***Ulerrizketa*** esperientziak bideratuko dituzten ***trebatzaileen*** dedikazioa dago. Eta bestetik erakundeko partaideen dedikazioak. Batetik, partaideak ***Uler-saioetan*** ari direneko dedikazioak, bestetik, ***Ulerrizketa*** esperientziak abiatzeko formazioen denbora eta, azkenik prozesu osoa bideratzeko Koordinazio Batzordeak egingo dituen bileren denbora, zein sailetan egingo direnena. Horrez gain, komunikazio-lanerako baliabideak daude.

11.4. Kontratazio-politika



Egitasmoa abiatzea erabakitzen den unetik aurrera erakundeak konpromisoa hartuko du erakundeko partaide berriek izango dutela euskarazko ulermena, gutxienez B1 mailan. Hala ez bada, abian den prozesuan atzerapauso nabarmenak ekar ditzake euskaraz ulertzen ez duten kideen inkorporazioak, ordura arte erakundean eginiko ahaleginen kaltetan, eta transformazio horrek eskatzen duen aldeko giroa zalantzan jartzera ere irits liteke.

12

NOLAKO ONURAK EKAR DITZAKE?



Eraikhitz Sistema erakunde edo eremu batean aplikatzeak borondatea, kolaborazioa eta ahalegina eskatzen ditu. Baina onurak ere ekar ditzake, bai erakunde mailakoak, eta bai bertako partaideek pertsonalki edo kolektiboki eskura ditzaketenak.

Erakundearen edo –kasuan kasuko– eremuaren aldetik, hainbat onura kolektibo ekar ditzake. Erronka kolektibo bat taldean irudikatu, onartu eta aurrera ateratzeak, alde batetik, indartu egin dezake partaideen erakundearekiko identifikazioa; eta lorpen sentsazio bat ere ekar diezaieke horretan aritu direnei.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

Bestalde, halako prozesu batek erakunde edo eremu horretako partaideen "gutasun berri" bat lantzeko aukera ere ematen du, proposatzen den prozesu linguistikotik haratago ere joan daitekeena. Edo balio dezakeena erronka (nagusiki linguistiko) horretan bestelako elementuak –kasuan kasuko erakundeari interesatzen zaizkionak– txertatzeko.

Balioei dagokionez, balore kooperatiboak nabarmendu daitezke. Helburu gisa finkatu den egoerara iristeko tresna nagusia *prozesu kolaboratibo* bat izateak, erakunde mailan giro kooperatiboa indartzen lagun dezake, eta hori onuragarria izan liteke, hala erakundearentzat nola bertako kide direnentzat.

Maila pertsonalagoan, eta norberaren hizkuntza-ohiturei, hizkuntza-erabilerari eta hizkuntza-praktikei dagokionez, hemen proposatzen diren ahaleginek onura ugari ekar ditzakete bertako partaideentzat.

"Euskaldunentzat", esaterako, euskaraz ongi hitz egin eta haien bizitzako hainbat harremanetan erabili ohi dutenei, ***mintzatzaile*** lanetan aritzeak, eta haien euskara egokitzen ikasi eta praktikatzeak bizipen on asko ekar diezaieke, baita euskaldun gisa duten euren auto-irudia aberasteko eta hobetzeko aukera ere. Azken finean, praktikan, gai sentituko dira euskaldun mota ezberdinek ulertzeko moduko euskara bat egiteko, egunerokoan euskara gehiago hitz egiteko aukera zabalduz, eta beste hiztun batzuei ere euskaraz egiteko aukera erreala eskainiz.

12

Prozesu honen hasieran erdaldun ziren edo euskara batere ulertzen ez zuten kideei, noski, euskaraz oinarrizko ulermena eskuratzeak hizkuntza baten jabe izatetik biren jabe izaten hastera pasatzeko aukera zabaltzen die. Horrez gain, prozesuan aurrera egin eta ***ulertzaile*** gisa egoera praktikoetan behin eta berriz aritzen badira, haien euskarazko ulermena hobetzen joango dira astez aste. Ez hori bakarrik, *ulermen aktiboan* trebatuko dira, eta ikasiko dute ulertutakoa *konprobatzen*. Eta baita, euskaraz azkarregi hitz egiten dietenean, (lotsarik gabe) eskatzen zati bat mantsoago errepikatzeko, edo beste hitz batzutan esateko, baina euskaraz (erdarara pasa gabe).

Azkenik, ***Eraikhitz Sistema***ren aplikazioak ekar dezake beste onura bat ere, erakundearen planoa, partaideen plano kolektiboa eta partaideen plano indibiduala –hirurak– zeharkatzen dituena. Euskal gizartean jendearen gehiengo handi bat da, ustez behintzat, euskara sustatzearen aldekoa, eta eguneroko gure egoera errealak "euskaldunago" egitearen aldekoa. Halako transformazio bat erakunde batean abiatu eta errealitate bihurtzeak izan dezakeen beste onura bat horixe da: jende askorentzat desiragarria den baina askotan nola egin ez dakigun edo ezin dugun transformazio bat aurrera atera izanaren satisfakzioa eta harrotasuna sentitzea.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

13


ZEIN FASETAN ETA EPETAN GAUZATZEN DA?

Ondorengo kronograman adierazten dira ***Eraikhitz Sistema***ren aplikaziorako jarraitzen diren lau faseak, eta horietako bakoitzean ematen diren urrats nagusiak, denbora lerroan kokaturik.

Guztira, sistemaren aplikazio osoak 15 eta 21 hilabete arteko iraupena du. Epe hori aldakorra da, nagusiki sortzen diren ***Uler-saioak*** taldeek daramaten asteroko erritmoaren arabera (asteko ordu-kopurua).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

13



[1] ULS-ak astean 4 orduko erritmoan eginda, 5 hilabete. Astean 8 orduko erritmoan eginda, 3 hilabete.
[2] ULS-ak astean 4 orduko erritmoan eginda, 7 hilabete. Astean 8 orduko erritmoan eginda, 4 hilabete.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

14

ZER DA ALDAHITZ IKERKETA?

Aldahitz Ikerketa Soziolinguistika Klusterrak garaturiko ikerketa-ildo bat da. Bere aztergai nagusia *hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak* dira eta 2010 urteaz geroztik dago martxan.

Izaera aplikatua du ikerketa honek: gaiari buruzko hausnarketa teorikoa eta ezagutza zientifikoa lantzen ditu alde batetik, eta hori uztartzen du ezagutza horren aplikazio praktikoarekin.

Aldahitz Ikerketan hiru metodologia sortu dira *hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesu* horiek errazteko edo bultzatzeko helburuarekin: ***Eusle***, ***Ulerrizketa*** eta ***Uler-saioak***. Hiru metodologia horien esperientzia praktikoak lankidetzan antolatuz eta horietan gertatzen dena ikertuz garatzen da, nagusiki, Aldahitz proiektua.

https://soziolinguistika.eus/aldahitz

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

GLOSATEGIA

- Arigunea: euskaraz aritzeko baldintza egokiak eskaintzen dituen eremu bat. Batetik, eremu horretan kide guztiak dira gai euskara ongi ulertzeko. Eta bestetik, euskaraz aritzea errazten duen giro bat dago eremu horretan, kolektiboki zilegitasuna ematen zaiolako –inplizituki edo esplizituki– euskaraz aritzeari.
- Berrespena: ***Eusle*** zein ***Ulerrizketa*** metodologietan, esperientzia batekin aurrera jarraitzeko erabakia, taldeko gehiengo kualifikatuz hartzen dena, aste bakoitzaren amaieran. Gehiengo kualifikatu estandarra metodologia hauetan %75eko aldekotasunarena da, baina kasu batzuetan altuagoak ere baliatzen dira (%100era arte).
- Egingarria: metodologia hauek aukera ematen dute *hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak* abiatu, bideratu eta harremanetan egonkortzeko. Baina halako prozesuek beren zailtasunak eta erronkak ere badituzte bere baitan. Metodologia hauek aplikatzean, partaide diren hiztunentzat, haien testuinguru mikroetan, eta harreman konkretu horietan, erronka horiek *egingarriak* izatea beharrezko baldintza bat da metodologiak eraginkorrak izateko, eta aldaketa-prozesuen emaitzak gogobetegarriak.
- Ele biko elkarrizketak: ordura arte gaztelaniaz zen harreman batean euskara erabiltzen hasteko aukera ematen duen elkarrizketa mota. Bideragarria izateko, kideen arteko adostasun bat, giro egoki bat eta konplizitate bat eskatzen ditu, besteak beste: akatsak egiteko eta *esanahia negoziatzeko* aukera ematen duena. Elkarrizketa mota horretan, ulermena bi norabideetan uneoro bermatzea da gakoetako bat. Hala, hiztun batek (nagusiki) euskaraz egiten du, bere euskara egokituz eta ulergarri eginaz, eta besteak (nagusiki) gaztelaniaz egiten du, ulermenean aktiboki jokatuz, aldiro ulertu duena konprobatuz eta zeozer ulertzen ez duenean adieraziz eta eskatuz. Metodologia hauetan, *ele biko elkarrizketak* aldaketa-prozesuen fase iragankor gisa irudikatzen dira, ez harreman baterako dinamika iraunkor gisa. Euskaraz gero eta gehiago ulertzen duen kidea, horretarako gai eta gogoz sentitzen den heinean, euskaraz hitz egiten hastea da hemen irudikatzen dena.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

- Euskarazko esperientzia normalizatua: ***Eraikhitz Sistema***ren inplementazioan fase aurreratuan irudikatzen den egoera. Bertan, alde batetik, eremuko kide guztiek ulertzen dute euskara, eta euskaraz aritzeko erraztasunik ez zuten kideak trebatu dira euskarazko harremanetan, ulermen ona izatera iritsiz. Baldintza horietan, euskaraz aritzeko erraztasuna eta nahia duten kideek hala aritzeko testuinguru egoki eta erraztu bat dute.
- Hizkera egokitzea: norbere euskarazko jarduna egokitzea, solaskideak ulertzeko moduko euskara bat eskaintzen saiatuz.
- Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak: harremanei sistema ikuspegi batetik begiratzen zaie metodologia hauetan: "harreman bat = sistema bat". Eta harreman jakin baten "hizkuntza-ohitura", harreman horren ezaugarri bat da, sistema edo osotasun horren ezaugarrietako bat. Halako aldaketa-prozesuetan, bi kidek (edo talde batek, kasuaren arabera) haien arteko harremanerako erabili ohi duten hizkuntza nagusian aldaketa gertatzen da. Hemen aztergai ditugu halako prozesuak gaztelaniatik euskarara gertatzen direnean, hau da, sozialki indartsua(goa) den hizkuntzatik, sozialki ahula(goa) den hizkuntzara.
- Input ulergarria: ingelesezko *comprehensible input* kontzeptuaren euskarazko ordaina. Hizkuntzen didaktikarekin eta jabekuntzarekin loturiko kontzeptua. Metodologia hauetan, harremanaren egoera errealean solaskideak ulertzeko moduko euskara litzateke. Erreferentzia zehatzagoetarako, ikus *Ulerrizketa metodologia* argitalpenean (2019) "Oinarri teorikoak" atala (10-31 or.) eta, zehatzago, 2.4.3 azpiatala. Ikus halaber *Uler-saioak metodologia. Ulermena garatzeko estrategia soziolinguistikoa* argitalpenean 2. atala (11-52 or.).
- Kolaboratiboa (izaera kolaboratiboa, dinamika kolaboratiboa, prozesu kolaboratiboa…): hemen proposatzen diren metodologiek, oro har, ikuspegi kolektiboa dute. Eta hala du sistema orokorrak berak ere: taldeko erabakiak eta taldeko erronkak. Beste hainbat arlotan bezala, kasu honetan ere, taldeko erronka bat aurrera ongi ateratzeak talde-lana eta talde-giroa eskatzen ditu. Metodologia hauetan, bereziki ***ulertzaile-mintzatzaile*** dinamiketan, proposatzen den lankidetzak ia ezinbestean giro kolaboratibo bat eskatzen du: elkarri egokitzea (printzipioz linguistikoki, baina maiz, hizkuntza mailan egokitzeak pertsonen arteko bestelako egokitzeak ere errazten ditu), bestearen lekuan jartzea, besteen prozesuez –neurri batean, behintzat– arduratzea, eta abar.

- Konprobatzea: edo egiaztatzea. ***Uler-saioak*** metodologiaren proposamen didaktikoaren eta ***Ulerrizketa*** metodologiaren oinarrian dagoen jokaera bat da. Euskarazko *ulermena bermatzea* da metodologia hauetan *hizkuntza-ohiturak* aldatzea posible egiteko proposatzen den oinarrietako bat. Eta "berme" hori, egoera praktikoan ***mintzatzaile*** batek uneoro sentitu beharreko zerbait da, ***ulertzaileari*** euskaraz egiten jarraituko badu. Zalantzaren aurrean, ohikoena gaztelaniara jotzea da. Eta horixe da, hain zuzen, *konprobatzea*: ***mintzatzaileari*** euskaraz eginda ulertua (eta onartua) denaren ziurtasuna ematea, modu batean edo bestean. Aldiro. Ziurtasun hori ez da zerbait formala, ***mintzatzaileak*** gorputzean sentitu behar duen sentsazio bat da. Erreferentzia zehatzagoetarako, ikus *Ulerrizketa metodologia* argitalpenean (2019) 2.5 atala (28-31 or).
- Mintzatzaile hodeiak: ***Ulerrizketa*** metodologiarekin loturiko dinamika bat da, ***Eraikhitz Sistema***rekin modu pilotuan probatuko dena (aurreko urteetako ***Ulerrizketa*** esperientzietan ez da halakorik probatu eta ikertu). ***Ulerrizketa*** esperientziak 3 pertsonako unitate txikietan egiten dira, ***ulertzaile*** bat eta haren hurbileko bi ***mintzatzaile***. Hodeiaren dinamikarekin irudikatu dena da ***ulertzaile*** batek (bere harreman naturalen aukera errealen arabera beti ere, jakina), behin lehen esperientzia bi ***mintzatzailerekin*** eginik, dinamika hori zabaltzea inguruko ***mintzatzaile*** gehiagotara, progresiboki, bere inguruan "mintzatzaileen hodei" moduko bat osatu arte. Hipotesia da horrek ***ulertzailea*** euskarazko "ulermen on" batera iristeko prozesua hobetu, azkartu eta aberastu egingo duela.
- Oinarrizko ulermena (hemen "tarteko ulermena"ren sinonimo gisa erabiltzen da). Ahozko euskara erraza, egokitua, ongi ahoskatua, estandarra, abiadura motelean eta hiztegi mugatuarekin ulertu dezakeenaren ulermen-maila. Erreferentzia modura, B1 inguruko ahozko ulermen-maila litzateke. Erreferentzia zehatzago eta teknikoagoetarako, ikus *Uler-saioak* (2020) eta *Ulerrizketa* (2019) metodologien argitalpenetako oinarri teorikoen atalak.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

- Tarteko ulermena: hemen “oinarrizko ulermena”ren sinonimo gisa erabiltzen da). Ahozko euskara erraza, egokitua, ongi ahoskatua, estandarra, abiadura motelean eta hiztegi mugatuarekin ulertu dezakeenaren ulermena. Erreferentzia modura, B1 inguruko ahozko ulermen-maila litzateke. Erreferentzia zehatzago eta teknikoagoetarako, ikus *Uler-saioak* (2020) eta *Ulerrizketa* (2019) metodologien argitalpenetako oinarri teorikoen atalak.
- Ulermen aktiboa: ***ulertzailearentzat***, bai ***Uler-saioak*** metodologian eta bai ***Ulerrizketa*** metodologian proposatzen den jokaera-mota, *ele biko elkarrizketak* bideragarri egiteko beharrezko osagaietako bat. Ikus gorago “Ele biko elkarrizketak” eta “Konprobatzea” puntuak.
- Ulerrizketa estiloa: harremantzeko modu bat, ***Ulerrizketa*** metodologiaren dinamikan edo ezaugarrietan oinarritua.
- Sintonizazioa: elkarri egokitzea; elkarri neurria hartzea. ***Ulertzaile*** bat eta ***mintzatzaile*** bat haien harremana “ulerrizketa estiloan” bideratzen hasten direnean egin beharreko ariketa. ***Mintzatzailearen*** aldetik, neurtzen joateko nola egokitu bere euskara, nola eskaini solaskide horrek, testuinguru horretan ulertzeko moduko euskara bat. Eta berdin ***ulertzailearen*** aldetik, neurtzen joateko nola konprobatu, nola eman ziurtasuna solaskideari berak ulertu duenaren gainean. Sintonizazio-lana ***Ulerrizketaren*** hasieran da bereziki garrantzitsua, lehen egun eta asteetan. Jardun ahala, gero eta naturalagoa da egokitze hori eta, beraz, gero eta sintonizazio-premia txikiagoa dago. Erreferentzia zehatzagoetarako, ikus *Ulerrizketa metodologia* argitalpenean (2019) oinarri teorikoak (10-31 or).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea